

«Gure jarrera», Negu Gorriak taldearen disko berria kalean

Lan luze honekin batera Esan Ozenki Records diskaetxea aurkeztu zen atzo Irunen

Josu JUARISTI, Donostia
Negu Gorriak taldearen "Gure jarrera" izeneko disko berria aurkeztu zen atzo eguerdian Irungo "Bertso-Hop Diskak" dendan. Disko hau, gainera, diskaetxe berri baten eskutik etorri da, Esan Ozenki Recordsen eskutik.


Diskaetxearen izenean, Angel Valdesek aurkeztu zuen Negu Gorriaren bigarren lan luze hau, eta presentazioarekin batera, sorpresatxoaren hasiera, taldeak diskoan grabatu dituen pare bat tema jo bait zituen denda barruan.

Bai saioetxo honetan eta baita LPan bertan ere, hauek izan dira taldekideak: Fermin Muguruza ahots nagusi bezala, Iñigo Muguruza kitarra eta ahotsetan, Kaki Arkarazo kitarra, ahotsak eta programaketan, Mikel "Anestesia" baxua eta ahotsetan eta Mikel "Bap" batera lanetan.

Lan honetan, aurrekoan bezalaxe, bertsoek ere badute txoko bat, eta zeregin horretan Jon Maia zumaiarra aritu da. Bertsolariak ere ez zuen atzoko aurkezpena galdu eta saioetxo bat eskeintzeko gonbitea jaso zuen.

Txokoa txokoko lagunak

Inguruko eta giroko jende asko bildu zen aurkezpen honetan. Mu-



Angel Valdesek aurkeztu zuen disko berria eta Negu Gorriak taldearen kideak.

sikari ugari eta baita musikaren inguruan lanean ari den jende mordoska bat ere, musikariaren lagun taldeak azken finean.

Lagun artean joan zen beraz, Esan Ozenki Records eta Negu Gorriak taldearen "Gure jarrera" izeneko bigarren lan luzearen aurkezpen koloretsua.

Sarrera eta epilogorekin

Disko berri honek 17 tema ditu. Sarrera batekin zabaldu eta epilogorekin bukatzen den LP honetan, beste batzuen artean, "Lehenbiziko bala", "NG badoa", "Itxafero mekanikoa", "Beste kolpe bat" edota "Euskal Herri nerea" abestiak entzun daitezke. Gainera, aipaturiko partaideez gain, Angel G. Katarainek programaketak egin ditu eta Eneko "Bap"ek "Ez dezagun sal" abestian koroak.

Diskoa 1991eko apirilan grabatu eta ekoiztu zen Donostiako IZ Estudioan, teknikoak Kaki Arkarazo eta Jesus Suinaga izan zirelarik. Azalaren diseinua Manolo Gilen lana izan da.

Aipatu, azkenik, kanta guztiak Negu Gorriakentzat direla, honako hauek ezik: "Song number one" Fugazirena da, "Buru garbiketa" eta "Itxafero mekanikoa" doinu herrikoiak dira eta "Azkena" kantaren hitzak Xabier Montoiaren "Narraztien mintzoa" izeneko liburitik hartu dituzte. Barruko liburuskari aipatzen den bezalaxe, lan hau burutzerakoan, Negu Gorriak ere askotako musika eta zaratak erabili ditu, bai doinuen euskarri bai eta lotura edo osagarri modura ere.



Aurkezpena eta saioaren ondoren lagunartean mahai ingurura.